

**13**

## **Kuota diferentziala**



### 13.1 Nola kalkulatzen da kuota diferentziala?

Kuota diferentziala kalkulatzeko, kuota osotik abiatuko gara. 11. kapituluan adierazi dugun bezala, kuota osoa ondoko bi kontzeptu hauek batuz lortzen da:

- Oinarri likidagarri orokorrari zergaren eskala aplikatuz ateratzen den kuota.
- Oinarri likidagarri bereziari %15eko tasa aplikatuz ateratzen den kuota.

12. kapituluan esaten genuenez, kuota osoari kuotako kenkariak gutxitzen bazaizkio, kuota likidoa ateratzen da, inoiz ere negatiboa izango ez dena.

#### LABURPENA

Kuota osoa – Kenkariak = Kuota likidoa

Aldi berean, kuota likidoari kontzeptu jakin batzuk kentzen bazaizkio, **kuota diferentziala** ateratzen da. Hona hemen kontzeptu horiek:

- Lan etekinengatik egindako atxikpenak eta konturako sarrerak.
- Kapital higikorren etekinengatik egindako atxikpenak eta konturako sarrerak.
- Kapital higiezinaren etekinengatik egindako atxikpenak eta konturako sarrerak.
- Jarduera enpresarial eta profesionalen etekinengatik egindako atxikpenak eta konturako sarrerak.
- Jarduera enpresarial eta profesionalen etekinengatik egindako ordainketa zatikatuak.
- Ondare irabazien etekinengatik (sari eta fondoetatik datozen) egindako atxikpenak eta konturako sarrerak.
- Enpresen aldi baterako batasunek eta interes ekonomikoko taldeek atxikipenen eta konturako sarreraren kontzeptupean egotzitako kopuruak.
  - Zergadunak egoitza aldatzeagatik hartzen badu zergadun izaera, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergan egin diren atxikpenak eta konturako sarrerak, eta egoitza aldaketa gertatu den zergaldian Zerga hori dela-eta ordaindu diren kuotak.

#### LABURPENA

Kuota diferentziala = Kuota likidoa - Konturako

Nordainketak Nolanahi ere, aurreko apartatuetan aipatu diren kenkariak egin ahal izateko, agiri bidez frogatu beharko dira. Kuota diferentziala bi motatakoa izan daiteke:

- **Itzultzekoa**: itzulketa ez da inoiz konturako ordainketak baino handiagoa izango.
- **Positiboa**: bi ordainketa modalitate izango dira aukeran:
  - Kuota diferentziala **bere osoan ordaintzea**. Epea 2006ko ekainaren 26an amaitzen da.

Aitorpenak modalitate mekanizatuan, telematikoan edo autolikidazio proposamena erabiliz aurkezten direnean, zergadunak kontu korrontearen zenbakia adierazi behar du.

Horrela, 2006ko ekainaren 30ean kuota diferentzialaren zenbateko osoa helbideratze kontuan kargatuko da.

- Kuota diferentziala **bi eptan ordaintzea**:

1. Kuotaren %60, 2006ko **ekainaren 26ra** arte.

Aitorpenak modalitate mekanizatuan, telematikoan edo autolikidazio proposamena erabiliz aurkezten direnean, zergadunak kontu korrontearen zenbakia adierazi behar du. Horrela, 2006ko ekainaren 30ean kuota diferentzialaren %60 helbideratze kontuan kargatuko da.

2. Gainerako %40a, **2006ko azaroaren 10era** arte.

